

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

**Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 24an hartutako erabakiaren laburpena; bertan deitzen baitira 2019-2020 ikasturtean Gasteizko Udaleko Hezkuntza-Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak**

BDNS (Identif.): 460537

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke.

#### **Lehen. Onuradunak**

Derrigorrezko hezkuntzako ikaskuntzak eskaintzen dituzten Gasteizko ikastetxeak izango dira deialdi honen hartzaileak, betiere, ikastetxe horietako ikasleek (guztiek edo batzuek) 2019-2020an Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatutako hezkuntza-programetako batean parte hartzen badute eta, horrez gain, garraio kolektiboren bat erabili behar izan badute beren ikastetxetik programa gauzatu den tokira joateko edo alderantzizko bidea egiteko.

#### **Bigarrena. Helburua**

Hauxe da diru-laguntzen deialdi honen xedea: 2019-2020 ikasturtean Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatutako hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeei beren gastuetan laguntzea, ikasleak garraio kolektiboetan garraiatzeak eragindako gastuetan, zehazki.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaile espezifikoak**

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko maiatzaren 24ko erabakiaren bitartez onetsiak; ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 11.284,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiri dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2019ko urriaren 11ra arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru-laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 30ean

*Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko jarduneko zinegotzi ordezkaria*  
**ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE**